

2018 API. 19

SARRERA - ERREGISTROA  
ZKA. 3301

Tolosako  
kopie: Aldekoa

### PENTSIO DUINEN ALDEKO MOZIOA

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen erosahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pentsioen erreformek kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ezin dugu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, konpainia elektrikoentzat, autobideen emakidunentzat, ...

Pentsiodun gehienok txirotasun-atalasearen azpitik kobratzen dugu eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzen azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gaian erabakimena duten politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzela, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma diezazkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak emakumeak direla eta onartezina den zigor bikoitza jasaten dutela.

Horregatik guztiarengatik, eta Tolosako Harizpe, Iturritza, Beti Gazteak eta Duintasuna elkarten izenean, honoko mozioa aurkeztu dugu osoko bilkuran onatzeko:

- 1.- Tolosako udalak pentsioen %0,25eko igoera arbuiatzen du eta pentsioek erosahalmenari eutsi behar diotela erreklamatzeko. Era berean eskatzen dugu urtero KPIa igotzea eta atzen 6 urteotan galdu den % 6,5eko erosahalmena berreskuratzeko.
- 2.- Tolosako udalak eskatzen du 1.080 €-tako gutxiengo pentsioa ezartzea, pentsiodunak txirotasun-atalasetik irteteko, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarritakoa betez, eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, nahiz eta eskumena transferituta ez duen, kontuan har dezala urteko aurrekontuetan txirotasun-atalasetik behera dauden pentsiodunentzat beharrezko laguntza osagarria.
- 3.- Tolosako udalak eskatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan ezar dadila Babes eta Segurtasun Sistema bat pentsio publikoak eta adineko pertsonak behar duten arreta duina eta nahikoa bermatuko dituen eta transferi dadila Gizarte Segurantzaren eskumena Gernikako Autonomia Estatutuko 18.2 artikulua ezartzen duen bezala.
- 4.- Tolosako udalak eskatzen du 2019. urtean ezarri beharko litzatekeen pentsioen jasagarritasun-faktorea, zeinak pentsioen murrizketa handia ekarriko lukeen, indarrean ez jartzea. Halaber, sistemaren defizita dagoen bitartean pentsio igoera % 0,25era mugatzen duen 23/2013 legea indargabetzea eskatzen du.
- 5.- Estatuaren Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari erabaki honen berri ematea.


Tolosan, 2018ko apirilaren 18an



EHBildu



PSE-EE



EAJ